

Itziar Mendia Urrutia

A maila • 2 saria

Kaixo! Itziar Mendia naiz, 17 urteko beasaindarra. Aurtengoa dut azken urtea Txindoki ikastetxean.

Nire zaletasunen artean irakurtzea, musika eta kirola daude. Horrez gain, bertso munduak ere asko erakartzen nau eta horregatik sari hau irabazteak asko poztu nau. Ea gustatzen zaizuen egindako sorta txiki hau!



Doinua: ETAre su-etenetik

BERTSOAK

1-

Zorionaren iturri
omen da ignorantzia
egin dugun min guztia
aspaldi dugu ahantzia
ez da positibo izan
inoiz gure presentzia
urrutiko lurraldeei
utzitako herentzia
nabarmen da gizarte
arteko diferentzia
nahiz ta jakin badakidan
handia da distantzia
ezin inola ulertu
gure indiferentzia

3-

10 urteko umezurtz
baten eskuan pistola
etxe baten suntsiketan
zutik gelditzen den ohola
horrenbesteren ametsak
osten dituen kaiola
zenbat bizitza konpondu
ezin direnak inola
askorentzat izaten da
egunerokoa hola
baina badirudi haiek
ez zaizkigula axola
ez da berdin hemen edo
Raqqan isuri odola

2-

Kendu diegu bakea,
kendu diegu indarra
eta gero armak saldu
dizkiegu barra-barra
zapaltzen ditugu asez
gure botere beharra
estaliz haien oihua,
isilaraziz negarra
nahiz eta uzten diegun
bizimodua kaxkarra
guri ez zaigu inporta
zer den ona zer den txarra
negozioa da hemen
inporta duen bakarra

4-

Sorrarazi dizkiegu
egun triste eta grisak
ostera ez dira hartzen
kontuan beraien hitzak
nahiz soilik hartu nahi duten
hau gordeleku berritatzat
ez dituztenez betetzen
europarron baldintzak
ez dizkiegu utzi nahi
orain Europako giltzak
ez al dira lotsagarri
burututako ekintzak?
Hesiz betez gure mugak
eta beraien bizitzak

5-

Ihesi irteten dira
duten guztia eskutan
gerraren ondorioak
oraindik euren larrutan
ilusio denak sartuz
esperantzaren txalupan
nahiz bidean geldituko
diren bostetik hirutan
baina ez dute ikusten
hau daudenak goi kargutan:
500 hartuko ditugu
5.000.000 utzi burrukan
zifrak ikusten dituzte
pertsonek dauden lekutan

6-

Ezer onik ez da lortzen
hesiz mugak marraztean,
denok berdina garela
estali edo ahaztean,
bizitzari kapitalak
lekua irabaztean,
besteen aurretik egon
gaitezkeela ebatztean
arazoa konpontzeko
dugu mugak eraistean
gorpurik ez da egongo
gehiagotan itsaspean
jatorriak ahaztu eta
elkarlanean hastean